

2.063

19/2005 FORU DEKRETUA, martxoaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez eguneratu egiten da Bingo Jokoaren gaineko Zergan bingo-kartoiak duen prezioa.

Jokoaren gaineko Zerga-tasari buruzko Foru Arauak, 1981eko maiatzaren 31n Arabako Biltzar Nagusiek onartu zuenak eta Arabako Lurralde Historikoaren Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauaren Lehen Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera indarrean dagoenak, 17. artikulua 4. idatz-zatia ezartzen duenez, Arabako Foru Aldundiak berrikusi ahal izango du bingo-kartoiaren prezioa kartoia egiteko kostua kontuan hartuta.

Jokoan banatuko den materiala egiteko kostua handiagoa denez gero, kartoiaren prezioa eguneratu egin behar da, eta prezioaren eguneratze horrek zergaren subjektu pasiboetarako eragingo die.

Horrela, Bingo Jokoaren gaineko Zergan bingo-kartoiak duen prezioa eguneratzea da foru dekretu honen helburua.

Ikusi da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Aldatu egiten da Jokoaren gaineko Zerga-tasari buruzko Foru Arauak, 1981eko maiatzaren 31n Arabako Biltzar Nagusiek onartu zuenak eta Arabako Lurralde Historikoaren Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauaren Lehen Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera indarrean dagoenak, 17. artikulua 4. idatz-zatia aipatzen den bingo-kartoiaren prezioa. Aldaketa horren ondorioz kartoiaren prezio berria 0,007473 euro dira, eta 2005eko apirilaren 1etik aurrera egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 22a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak

1.953

68/2005 FORU DEKRETUA, martxoaren 17koa, diputatu nagusiarena. Foru dekretu honen bidez Enrique Aguirrezabal Otálora jauna, Gizarte Gaietarako Saileko foru diputatua, kargutik kentzen da eta, bide batez, aldundiari eta Arabako Lurralde Historikoari eskainitako zerbitzuengatik eskerrak ematen zaizkio.

Diputatu nagusiaren uztailaren 9ko 128/2003 Foru Dekretuaren bidez Enrique Aguirrezabal Otálora jauna Gizarte Gaietarako Saileko foru diputatu izendatu zen. Foru dekretu hori 2003ko uztailaren 11ko ALHAOn (81 zenbakia) argitaratu zen.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2005eko martxoaren 16ko osoko bilkuran, gehiengo osoz onartu zuten foru diputatu horren aurka José Miguel Fernández López jaunak eta hamabost biltzarkide gehiagok aurkeztutako zentsura-mozioa.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauaren 19.8, 41.c) eta 42.2 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Enrique Aguirrezabal Otálora jauna Gizarte Gaietarako Saileko foru diputatu kargutik kentzea eta, bide batez, aldundiari eta Arabako Lurralde Historikoari eskainitako zerbitzuengatik eskerrak ematea.

Bigarren.- Foru dekretu honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra.

Hirugarren.- Foru dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko martxoaren 17a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.

2.063

DECRETO FORAL 19/2005, del Consejo de Diputados de 22 de marzo, que actualiza el importe del cartón en el Tributo sobre el Juego modalidad del Bingo.

El apartado 4 del artículo 17 de la Norma Foral de la Tasa Fiscal sobre el Juego aprobada por Acuerdo de las Juntas Generales de Álava de 31 de mayo de 1981, en vigor de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera de la Norma Foral 5/2005, de 14 de febrero, (por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Álava), establece que la Diputación Foral de Álava podrá revisar el valor del cartón en el Juego del Bingo de acuerdo con el coste de su elaboración.

La subida del coste en la elaboración del material a distribuir, determina la necesidad de actualizar el importe del cartón, y su repercusión a los sujetos pasivos del citado Tributo.

Así, el presente Decreto Foral tiene por objeto actualizar el importe del cartón determinante del Tributo sobre el Juego modalidad del Bingo.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO:

Con efectos de 1 de abril de 2005 se modifica el importe del cartón al que hace referencia el apartado 4 del artículo 17 de la Norma Foral de la Tasa Fiscal sobre el Juego del Bingo, aprobada por Acuerdo de las Juntas Generales de Álava de 31 de mayo de 1981, en vigor de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera de la Norma Foral 5/2005, de 14 de febrero, (por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Álava), quedando establecido el mismo en 0,007473 euros por cartón.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de marzo de 2005.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Decretos Forales del Diputado General

1.953

DECRETO FORAL del Diputado General 68/2005, de 17 de marzo, por el que se cesa a don Enrique Aguirrezabal Otálora en su cargo de Diputado Foral de Asuntos Sociales, agradeciéndole los servicios prestados a la Diputación y al Territorio Histórico de Álava.

Mediante Decreto Foral del Diputado General 128/2003, de 9 de julio (BOTH A número 81, de 11 de julio) se designó a don Enrique Aguirrezabal Otálora Diputado Foral titular del Departamento de Asuntos Sociales.

En sesión plenaria de las Juntas Generales de Álava celebrada el 16 de los corrientes se ha aprobado por mayoría absoluta de la cámara la moción de censura presentada contra dicho Diputado por don José Miguel Fernández López de Uralde y quince procuradores más.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me corresponden al amparo de los artículos 19.8, 41.c) y 42.2 de la Norma Foral 52/92, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación

DISPONGO:

Primero.- Cesar a don Enrique Aguirrezabal Otálora en su cargo de Diputado Foral de Asuntos Sociales, agradeciéndole los servicios prestados a la Diputación y al Territorio Histórico de Álava.

Segundo.- El presente Decreto Foral producirá efectos a partir de la fecha de su aprobación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 2005.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB A.